Erantsitako zerrenda

2000 ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegorako urteko guztizko kostua, errepideak lurralde historikoei eskualdatzearen ondorioz

11. atala.– Garraio eta Herri Lanak

| | Pezetak |
|---|---|
| Ikuskaritza teknikoa | 120.374 |

Relación anexa

Coste total anual para la Comunidad Autónoma del País Vasco en el ejercicio 2000 asociado al traspaso a los Territorios Históricos

Sección 11.– Transportes y Obras Públicas

| | PTA |
|---|---|
| Inspección Técnica | 120.374 |

## HERRIZAINGO SAILA

## Zk-5854

277/2000 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudia aldarazi duena.

Egun indarrean dagoen Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren aldarazpena, Dekretu honen bidez egin dena, bi arrazoirengatik burutu da: alde batetik, joko aretoetan eskura diren makinen gehieneko kopurua lokal horietako joko-eskariaren neurrira moldatzeko; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoa araupetu duen 4/1991 Legearen Azken Xedapenetatik Bigarrenak gehieneko kopuru hori berrikusteko baimena ematen du. Beste alde batetik, joko aretoen jarduera zentzuzkotzeko, horiek antolatzeko irizpideak ezarriz, halako moldez non joko arloko lokalak eta elementuak kontzentratzea galaraziko baita.

Hori dela bide, Herrizaingo sailburuak proposatuz, Euskal Herriko Joko Kontseiluak txostena egin ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2000ko abenduaren 26an egin duen bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, ondokoa

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Urriaren 4ko 380/1994 Dekretuaren bidez onetsitako Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 2. artikulua aldarazi da, eta orain jarraian adierazten den idazketa izango du:

A) 2.2. artikulua, bigarren paragrafoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Joko Areto guztietan instalatu beharreko «B» motako makina kopuruak ezin du izan 1.500etik gorakoa».

B) 2.2. artikuluan beste paragrafo bat gehitu da:

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

## N°-5854

DECRETO 277/2000, de 26 de diciembre, de modificación del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

La modificación del vigente Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos que mediante el presente Decreto se realiza obedece a dos razones: en primer lugar, adecuar el número máximo de máquinas disponibles en salones de juego a la dimensión actual de la demanda de juego en estos locales; número máximo que la propia Ley 4/1991, Reguladora del Juego en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su Disposición Final Segunda, autoriza a revisar. En segundo lugar, racionalizar la actividad de los salones de juego, estableciendo criterios de ordenación de los mismos, de modo que se evite la concentración de locales y elementos de juego.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el 26 de diciembre de 2000.

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Se modifica el artículo 2 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, aprobado por el Decreto 380/1994, de 4 de octubre, quedando redactado del siguiente modo:

A) Artículo 2.2, párrafo segundo.

El número máximo de máquinas de tipo «B» a instalar en la totalidad de los Salones de Juego de la Comunidad Autónoma del País Vasco no podrá ser superior a 1.500»

B) Se añade un nuevo párrafo al artículo 2.2.

«Joko Aretoetan ezin instalatu izango da «B» motako 12 makina baino gutxiago ez eta 50 baino gehiago.

***Bigarren artikulua.***– Ondoko aldarazpen hauek egin dira 8. artikuluan:

A) Aipatu artikuluari 5. atala gehitu zaio:

«Ez da joko aretorik jartzeko baimenik emango, baldin eta beste areto batzuk badaude baimenduta edo tramitazioan instalatu asmo den aretoarekiko erradialki neurtutako 150 metroko edo gutxiagoko distantzian, edo linealki neurtutako 200 metroko edo gutxiagoko distantzian. Tramitatzen dagoen espedienteren bat administrazio bidean irmoki artxibatu edo ukatzen denean, eskabideen ordenaren arabera egoki den interesatuak egikaritu ahal izango du eskubidea.

Distantzia erradialtzat joko da baimena jaso asmo den lokaleko atea zentrotzat duen zirkunferentzia baten erradiotik neurtzen dena. Distantzia linealtzat joko da baimena jaso asmo den lokalera sartzeko atetik neurtzen den distantzia, oinez ibil daitezkeen bide baimenduetatik neurtuta.»

B) 8.2. artikuluari beste idatz-zati bat erantsi zaio:

«c) Lokalaren kokapen planoa, lokalaren inguruko gutxienez 250 metroko erradio batez mugatutako azalerari dagokiona, eta alde horretan beste joko aretorik ez dagoen adierazpena, artikulu honetan ezarririk dauden distantziak aintzat hartuta. Hori guztia jendaurreko ikuskizun eta josteta jarduueretarako lokalen arloko teknikari eskudunak edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako erakundeak ziurtatu beharko du».

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa.***– Joko dentsitate handiko aldetzat jotzen da B motako makinak dituzten bi joko areto edo gehiago dituena, baldin eta alde horretan joko aretoen arteko distantzia Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 8. artikuluan ezarririk dagoen distantziaren berdina edo txikiagoa bada.

Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 2.2. artikuluaren bigarren paragrafoan ezarririk dagoenaren kalterik gabe, joko dentsitate handiko aldean sartzen den areto bakoitzean ezin instalatu izango da «B» motako 25 makina baino gehiago.

***Bigarrena.***– Joko aretoek Dekretu hau indarrean sartzen denean baimendurik dauden «B» motako makina kopurua mantendu ahal izango dute. Aurrekoaren kalterik gabe, Dekretu honetan araupetu diren mugak gaindituz gero, ezin izango da «B» motako makinak ustiatzeko beste baimenik eman, ez eta aldi baterako edo behin betiko baja emanda dauden makinak alta hartu ere.

«En los salones de juego no podrán instalarse menos de 12 ni más de 50 máquinas de tipo «B».

***Artículo segundo.***– Se realizan las siguientes modificaciones en el artículo 8:

A) Se añade un nuevo apartado 5 al citado artículo:

«No se autorizarán salones de juego cuando existan otros autorizados o en tramitación a una distancia igual o inferior a 150 metros medida radialmente, o igual o inferior a 200 metros medida linealmente, del que se pretende instalar. En caso de archivo o denegación firme en vía administrativa de un expediente en tramitación, el derecho lo podrá ejercitar el interesado que corresponda por orden de solicitud.

Se entenderá por distancia radial la medida del radio de una circunferencia cuyo centro sea la puerta de acceso del local cuya autorización se pretende. Se entenderá por distancia lineal la distancia medida desde la puerta de acceso al local cuya autorización se pretende, medida a través de itinerarios accesibles, permitidos y recorribles a pie.»

B) Se añade un nuevo apartado al artículo 8.2.:

«c) Plano de situación del local relativo a una superficie delimitada por un radio de, al menos 250 metros, alrededor del mismo, y declaración de inexistencia de salones de juego en dicha zona, considerando las distancias establecidas en este artículo. Todo ello certificado por técnico competente o por entidad homologada por el Gobierno Vasco, en materia de locales de espectáculos públicos y actividades recreativas».

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera.***– Se entiende por zona de alta densidad de juego, la que incluya dos o más salones de juego de máquinas de tipo B en un área en la que la distancia entre salones de juego sea igual o inferior a la establecida en el artículo 8 del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 2.2., párrafo segundo del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos, no se podrán instalar más de 25 máquinas de tipo «B» en cada salón incluido en zona de alta densidad de juego.

***Segunda.***– Los salones de juego podrán mantener el número de máquinas de tipo B autorizadas a la entrada en vigor del presente Decreto. Sin perjuicio de lo anterior, en caso de exceder los límites regulados en este Decreto, no podrán concederse nuevos permisos de explotación de máquinas de tipo «B», ni darse de alta aquellos que hayan sido dadas de baja temporal o definitiva.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Areto bakoitzean ustiatu beharreko makinen gutxieneko kopurua Dekretu honetan ezarri denari egokitu beharko zaio indarrean jartzen den egunetik aurrera zenbatu beharreko sei hileko epe luzaezinaren barruan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Joko Areto eta Jolas Aretoen Araudiaren 14.1 eta 16.4 d) artikuluak ezabatu dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

El número mínimo de máquinas a explotar en cada salón deberá adecuarse a lo previsto en el presente Decreto en el plazo improrrogable de seis meses a partir de su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se suprimen los artículos 14.1 y 16.4 d) del Reglamento de Salones de Juego y Salones Recreativos.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.

## Zk-5855

AGINDUA, 2000ko abenduaren 21ekoa, Herrizaingo sailburuarena, abenduaren 24ko 308/1996 Dekretua zati baten garatzen duena. Azken dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta beste sistema eta instalazio batzuen gaineko araudia onartu zen.

Abenduaren 24ko 308/1996 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta beste sistema eta instalazio batzuen gaineko araudia onartu zen. Eta dekretu hori aplikatzearen ondorioz lortutako esperientzia dela-eta, komenigarritzat jotzen da garapen-arauak ezartzea, hain zuzen ere, joko aretoetan elkarri lotutako sistemak ustiatzeko eta homologatzeko baldintzak zehaztearren, eta hori agindu hau argitaratuaz egiten da.

Hortaz, indarreango ordenamendu juridikoak ematen dizkidan ahalmenez baliatuaz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Joko Aretoetako makimen interkonexioa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko joko-makinen, makina laguntzaileen eta beste sistema eta instalazio batzuen gaineko araudiko 8 k) artikuluan xedatzen dena-

## N°-5855

ORDEN de 21 de diciembre de 2000, del Consejero de Interior, por la que se desarrolla parcialmente el Decreto 308/1996, de 24 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La experiencia en la aplicación del Decreto 308/1996, de 24 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aconseja el establecimiento de normas de desarrollo, mediante la publicación de la presente Orden, al objeto de determinar las condiciones de homologación y explotación de los sistemas interconectados de los salones de juego.

Por lo tanto, y en virtud de las facultades que me confiere el ordenamiento jurídico vigente,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Interconexión de máquinas en Salones de Juego.

1.– De acuerdo con lo que dispone el artículo 8 k) del Reglamento de máquinas de juego, máquinas auxiliares y otros sistemas e instalaciones de la Comuni-